

JARDUERA: BISITA TURISTIKO GIDATUAK EGITEA

ACTIVIDAD: REALIZAR VISITAS TURÍSTICAS GUIADAS

➤ **Informazio orokorra**

Eskabidea nork

Bisita gidatu turistikoak egingo dituen gidak edo antolatzen dituen enpresak.

Eskabidea noiz

Edozein unetan, jarduera garatu aurretik.

Indarraldia

Indarraldia: aldez aurreko jakinarazpenak indarrean jarraituko du adierazitako aldian, eta, gehienez ere, aurretiazko jakinarazpena aurkeztu den urte naturaleko abenduaren 31ra arte.

➤ **Betekizun eta baldintza orokorrak**

- Taldeak ez dira **25 lagun** baino gehiagokoak izango, taldea gidatzen duen pertsona kontatu gabe.
- **Ordutegia:** 08:00etatik 23:00etara besterik ez dago egiterik jarduera.
- Debekatuta dago bide publikoan edozein jarduera, soinu-ekitaldi edo megafonia-erabilera egitea; hala ezartzen baitu Zarata eta bibrazioengatiko kutsadura akustikoari buruzko udal ordenantzak, 2022ko maiatzaren 12koak.
- Jakinarazpenarekin batera, identifikazio-fitxa bat ematen da. Ondo ikusteko moduan eraman behar da hura bisita guztietan; han agertzen dira-eta, besteak beste, espedientearen datuak eta baimendutako aldia.

➤ **Baldintzak**

- Bide publikoa okupatzea: hartarako egokiak diren leku eta espazioetan gelditzea. Ez okupatzea, adibidez, pasabideak, bidegorriak, espaloi oso estuak, taberna eta/edo dendetako ate aurreak, eta abar. Parkeak, hiribideak eta horrelakoak erabili gelditzeko.
- Jende asko ibiltzen den kaleak eta gunek sailhestea udan eta punta-puntako orduetan.
Bereziki, Parte Zaharreko eta Erdiguneko kale eta plazak, eta itsas fronteko ibilbideak.
- Leku tarte bat uztea Udalak antolatutako edo baimendutako ekitaldietatik, enbarazurik ez egiteko haiei.
- Gutxienez 75 metro uztea beste talde batzuetatik, bata bestearen ondoan jarri gabe. Hori dela-eta liskarrik izanez gero, bi taldeek alde egin behar dute handik.

➤ **Información general**

Quien lo puede presentar

El o la guía que realice la visita turística guiada o la empresa organizadora de la visita turística.

Cuando realizar la comunicación

En cualquier momento, previo al desarrollo de la actividad.

Vigencia

La comunicación previa mantendrá su vigencia durante el periodo indicado y como máximo hasta el 31 de diciembre del año natural en que se ha presentado la comunicación previa.

➤ **Términos y condiciones generales**

- Los grupos no superarán los **25 componentes**, mas la persona que guía el grupo.
- **Horario:** La actividad se podrá realizar sólo en la franja horaria comprendida entre las 8:00 y las 23:00 horas.
- Queda prohibida la realización de cualquier actividad, evento sonoro o uso de megafonía en la vía pública, según la Ordenanza Municipal frente a la contaminación acústica por ruidos y vibraciones del 12 de mayo de 2022.
- Junto con la comunicación se emite una ficha identificativa que se deberá mostrar en lugar visible en todas las visitas, donde figuran los datos del expediente y el periodo autorizado.

➤ **Condiciones**

- Ocupación de la vía pública: detenerse en lugares y espacios propicios para ello. Evitar lugares de paso, carriles bici, aceras muy estrechas, entradas de hostelería y/ o comercio, etc. Aprovechar parques, avenidas, etc.
- Evitar áreas / calles muy saturadas en verano y horas punta.
Principalmente las calles y plazas de la Parte Vieja y centro de la ciudad y los paseos del frente marítimo.
- Guardar cierta distancia de los actos organizados o autorizados por el Ayuntamiento para no interferir en ellos.
- Respetar una distancia mínima de 75 metros con respecto a otros grupos. En el caso de que se produzca alguna disputa por este hecho, se abandonará, junto con la otra parte, el lugar.



- Oinezkoen zirkulazioari oztoporik ez egitea; eta, hala, gutxienez 2 metro uztea barandatik, hormatik edo pasealekua mugatzen duen fatxadatik.
- Hiri-altzariak ezin izango dira gizalegerik gabe erabili.
- Bisitariarentzat zein gidariarentzat arriskutsua izan daitekeen ekintzarik ez egitea.
- Une bakoitzean indarrean diren neurri berezi guztiak betetzea (ordutegia, maskara jartzea...).
- Hiriko ondareari eta kulturari balioa ematea. Ondo jakitea hiriaren historia eta kultura, eta eskualdeko ondareari eta kulturari balioa ematea bisitetan; eskualdetzat hartuta gutxienez Gipuzkoa eta, hedaduraz, Euskal Autonomia Erkidegoa. Hori guztia bisitaria kokatzeko, bisita testuinguruan jartzeko eta eskualdeko beste leku interesgarri batzuk ezagutarazteko, turismoaren deslocalizazioa lortze aldera.

► Konpromisoa

- Onartzen dut Udaltzaingoaren aginduz lekua uztera.
- Udaltzaingoaren zaintza lana errazte aldera, edonork ikusgai izateko moduan jarriko dut nire emanaldietan jakinarazpen honi lotutako beheko eranskina.

► Ohartarazpena

- Udaltzaingoak ahalmena du baldintza horiek betearazteko, jarduketak beste ekitaldi batzuekin bateragarri egiteko eta tokitik alde egiteko agintzeko.
- Ezarritako baldintzak ez betetzeak zehapen-prozedura hastea ekar dezake

► Gomendioak

- Bisitariei denbora libreka uztea erakargarritasunez gozatzeko (museoak eta baliabide turistikoak, esate baterako). Tokiko saltoki txikietan kontsumitzea gomendatzea, eta tokiko negozioak –bakarrak eta desberdinak– garatzen laguntzea.
- Bisita alternatiboak egitea, bisita panoramikoak egitea edo hiria beste auzo edo talaia batetik azaltzea, batez ere bisitari asko biltzen den uneetan.
- Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak, behintzat (euskara eta gaztelania), jakitea gidek.
- Tokiko gastronomiaren alde --benetako eta kalitatezko gastronomiaren alde-- egiten duten establezimenduak gomendatzea.

- No obstaculizar la circulación peatonal, dejando al menos 2 metros desde barandilla, murete o fachada que limite el paseo.
- No se podrá utilizar de manera incívica el mobiliario urbano.
- No realizar ninguna acción que suponga un riesgo tanto para quien realiza la visita como para el/la guía.
- Se cumplirán cuantas medidas especiales (horario, mascarilla...) estén en vigor en cada momento.
- Poner en valor el patrimonio y la cultura de la ciudad. Conocer bien la historia de la ciudad y la cultura de la misma, y poner en valor en las visitas, el patrimonio y la cultura de la región, entendiendo cómo tal como mínimo la provincia de Gipuzkoa y por extensión, la Comunidad Autónoma Vasca. Todo ello para situar al visitante, contextualizar la visita y dar a conocer otros puntos de interés de la región, en pos de conseguir una deslocalización del turismo.

► Compromiso

- Me comprometo a abandonar el lugar en el caso de que la Guardia Municipal así me lo ordene.
- En mis actuaciones mostraré en lugar visible la hoja identificativa de esta comunicación abajo anexada.

► Advertencia

- La Guardia Municipal se encuentra facultada para hacer cumplir estos requisitos y compatibilizar las actuaciones con otros eventos, y ordenar el abandono del lugar.
- El incumplimiento de las condiciones establecidas podrá dar lugar a la incoación de procedimiento sancionador.

► Recomendaciones

- Dejar un tiempo libre a los visitantes para disfrutar de atractivos como museos, recursos turísticos. Recomendar consumir en el pequeño comercio local, apoyar el desarrollo de negocios locales, únicos y diferentes.
- Realizar visitas alternativas, visitar la ciudad con una visita panorámica o explicar la ciudad desde otro barrio o atalaya, fundamentalmente en momentos de alta concentración de visitantes.
- Que los y las guías tengan conocimientos de los 2 idiomas oficiales de la Comunidad Autónoma Vasca, el euskera y el castellano, como mínimo.
- Recomendar establecimientos de restauración que apuestan por la gastronomía local, auténtica y de calidad.